



38/2025 EBAZPENA, Enplegu Publikoko sailburuordearena, Espetxe Administrazio Zigor Betearazpeneko Laguntzaileen Eskalako, Espetxe Administrazio Zigor Betearazpeneko Laguntzaileen Kidegoko (C1 taldea), Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako lan-poltsa handitzeko dena.

Gobernu Kontseiluaren 2022ko uztailaren 12ko Erabakiak, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrearen Mahai Sektorialaren Akordioa onartzen baita, Euskal Espetxeetako Administrazioan zerbitzuak ematen dituzten enplegatu publikoen zenbait alderdi espezifiko arautzen dituenak (EHAA, uztailaren 22koa), III. Eranskinean, aurreikusten du aldi baterako deialdi bat onartu behar dela EAEko espetheen transferentziaren ondorioz hutsik dauden lanpostuak bitarteko izendapen bidez betetzeko, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari eskaera bat eginez.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2022ko abuztuaren 30eko Ebazpenaren bidez, Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako espetxeetan laguntzaile lanposturako (C1 azpitaldea) lan-poltsa eratze hantaketa-prozesurako deialdia egin zen.

Funtzio Publikoko sailburuordearen urtarilaren 10eko 01/2023 Ebazpenak Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan Espetxe Administrazio Zigor Betearazpeneko Laguntzaileen Kidegoko Espetxe Administrazio Zigor Betearazpeneko Laguntzaileen Eskalako (C1 taldea) lan-poltsa eratzen du, eta hautaketa-prozesua gainditu duten langileak biltzen ditu.

Ondoren, Funtzio Publikoko sailburuordearen ekainaren 23ko 017/2023 eta ekainaren 18ko 072/2024 Ebazpenen bidez, Espetxe Administrazio Zigor Betearazpeneko Laguntzaileen Kidegoko (C1 taldea) Espetxe Administrazio Zigor Betearazpeneko Laguntzaileen Eskalako lan-poltsa handitu zen (Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako C1 taldea), eta hautaketa-prozesua gainditu duten langileak integratu ziren, urtarilaren 10eko 01/2023 Ebazpenaren bidez eraturako eta gero handitutako lan-poltsako azken kidearen atzetik, zero puntuazioarekin.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2022ko abuztuaren 30eko Ebazpenaren zortzigarren oinarriak prestakuntza teoriko-praktikoaren edizio berriak egitea aurreikusten du, honela: "Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, hainbat prestakuntzajarduera teoriko-praktiko egin ahal izango dira. Pertsona berriak aurreko prozesuko azken pertsonatik aurrera sartuko dira lan-poltsan".

2025eko martxoaren 13an, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpen baten bidez, argitaratzen dira aipaturako lanpoltsako hautaketa-prozesuko prestakuntza teoriko-praktikoaren laugarren edizioko behin betiko emaitzak, Herri



Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2025eko martxoaren 17ko Ebazpenaren bidez aldatuak.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izangaiek merezimendu-lehiaketan eta hautaketaprozesuko laugarren prestakuntza teoriko-praktikoan lortutako behin betiko puntuazioak argitaratu eta Enplegu Publikoko Zuzendaritzari jakinarazi ondoren, Enplegu Publikoko sailburuordearen ebazpen bidez lan-poltsa handituko da eta laugarren prestakuntza teorikopraktikoko langileak sartuko dira, ebazpen honetan jasotako baldintzetan.

Azkenik, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduan xedatutakoaren arabera, ebazpen hau eta lan-poltsaren zerrenda argitaratuko dira EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Lan-poltsen Atarian.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 17. artikuluan emandako eta Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduaren 3. artikuluan esleitutako eskumenaren arabera, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Espetxe Administrazioko Zigor Betearazpeneko Laguntzaileen Kidegoko Espetxe Administrazioko Zigor Betearazpeneko Laguntzaileen Eskalako lan-poltsa handitzea eta langileak integratzea, ebazpen honen eranskinean ezarritako baldintzetan.

Bigarrena.- Lan-poltsen Atarian argitaratzea Ebazpen hau eta lan-poltsa handitu ondoren lanpolttsetan dauden langileen zerrenda. Atari horretara egoitza elektronikoaren eta helbide honen bidez sar daiteke: www.euskadi.eus/lanpoltsak.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Lan-poltsen Atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean

MAITE BARRUETABEÑA ZENEKORTA
ENPLEGU PUBLIKOKO SAILBURUORDEA

ERANSKINA

Lehenengo oinarria.- Lan-poltsa osatzen duten langileak

Espetxe Administrazioako Zigor Betearazpeneko Laguntzaileen Eskalako lan-poltsan sartuko dira Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2025eko martxoaren 17ko Ebazpenaren eranskinean jasotako langileak. Ebazpen honen bidez argitaratzen dira izangaiek merezimendu-lehiaketan eta hautaketa-prozesuko laugarren prestakuntza teoriko-praktikoan lortutako behin betiko puntuazioak.

Bigarren oinarria.- Ordena eta puntuazioa.

Langileak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2025eko martxoaren 17ko Ebazpenaren eranskinean agertzen den hautaketa-prozesuaren ondoriozko hurrenkeran sartuko dira, zero puntuazioarekin, Funtzio Publikoaren sailburuordearen urtarrilaren 10eko 01/2023 Ebazpenaren bidez eratu eta Funtzio Publikoaren sailburuordearen ekainaren 23ko 017/2023 eta 072/2024, ekainaren 18ko Ebazpenen bidez zabaldu zen lan-poltsako azken kidearen atzetik.

Hirugarren oinarria.- Langileen egoerak eta lehentasunak

1. Langileak lanerako prest egoeran egongo dira.

2. Langile horiek honako aukera hauek izango dituzte lehenetsita:

- Edozein prestazio-modalitate
- Edozein lanaldi
- Edozein ordutegi
- Edozein eremu geografiko

3. – Interesdunek Lan-poltsen Atariaren bidez aldatu ahal izango dituzte prestasun-egoeraren aldaketa eta ebazpen honetan lehenetsita ezarritako lehentasunak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketa arautzen duen Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduaren ezarritakoaren arabera.

Aldaketek ondorioak izango dituzte egin eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarren oinarria.- Publizitatea eta ondorioak

1.- Espetxe Administrazioako Zigor Betearazpeneko Laguntzaileen Eskalako lan-poltsa osatzen duten langileen zerrenda, handitu ondoren, Lan-poltsen Atarian argitaratuko da. Atari horretara egoitza elektronikoaren eta helbide honen bidez sar daiteke: www.euskadi.eus/lanpoltsak.

2.- Ebazpen honek eta lan-poltsa hori osatzen duten langileen zerrendak ondorioak izango dituzte Lan-poltsen Atarian argitaratzen denetik.